

# BUSTURIALDEKO NAGUSIEN DANTZARI EGUNA **NABARNIZEN**

**AZAROAK 17**

**19:00<sub>RETAN</sub> NABARNIZKO FRONTOIAN**



**Parte hartzaileak:**

Itsas-alde (Bakio) | Alkartasuna (Bermeo) | Gazte-zahar (Mundaka) |  
Irrintzi-alai (Busturiko) | Urdaibai (Foru) | Elai-alai (Gernika) |  
Artie (Gautegiz-Arteako) |

**Antolatzaileak:**

NABARNIZKO UDALA eta KABELINATZE DANTZA TALDEA

## BESTE AUKERA BAT

Dakizuenek, Nabarnizko Udalak dagoeneko bi deialdi egin dauz, Eleixaldeko prezio tasatuko 8 etxebizitzak eskaintzen. Aurreko bi aldietako asmoa etxeak saltzea izan zan, eta gainera, bigarren aldian prezioa be bajatu izan jaken. Baten batek interesa agertu eban arren, azkenean ez eban inork aurrera egin, eta etxebizitza horreetan jendea bizitzen ikusi nahi arren be, kontue da danak dagozela hutsik.

Hori hola, Diputaziotik beste eskaintza bat egin da, eta da etxeok alokairuan emotea, baina erosteko aukeragaz. Hau da, etxea alokatzen dabenak etxea, eta beragaz batera garaje eta trastelekua erosteko aukera izango dau. Horretarako 10 urteko epea izango da kontratua sinatu ebanetik. Eta epe horretan erosten bada, alokairu legez ordaindu den kopurua etxebizitzaren prezioetik murriztuko da, beraz, zenbat eta lehenago erosi, diru gehiago izango da kontutan eroslearen alde.

Etxebizitza hauetako bat eskuratu ahal izateko baldintzak:

- 1.- Adinez nagusia izatea.
  - 2.- Etxebizitzarik ez izatea.
  - 3.- Lehenengo etxebizitzarako izatea.
- Nabarnizen erroldatuta egotea, edo bestela Busturialdean, edo Bizkaian (baina hurrenkera horretan).



Jakin badakigunez honek sasoiek ez direla onenak etxeak erosteko, eta ahal bada hobe dala behar dabenari eskaintzea eta okupatuta izatea, Nabarnizko Udalak onartu egin dau Diputazioak egingako eskaintza. Eta urriaren 23an egindako azken plenoan aho batez onartu zan Diputazioagaz daukagun konbenioa aldatzea.

Beraz, hauxe da, gitxi gorabehera aurreratu ahal doguna. Dana dala, eskaintza hori arautuko daben oinarriak onartzen direnean, herritar guztiei jakinaraziko jake, eta etxeetara honen barri emon.

Dana dala baten batek argibide gehiago nahi izanez gero, Udaletxetik pasatu eta emongo jako.

## GIMNASIA IKASTAROAK

Neguaren hotza kentzeko, Nabarnizko Udalak gimnasia ikastaroa jarri dau martxan.

Gimnasia ikastaroak barikutan izaten dira arratsaldeko 18.30-19.30 lehenengo saioa eta 20.00-21.00 bigarren saioa.

Ikastaro hau mundu guztiarentzako da, gazte zein nagusientzako. Bertan hainbat ariketa egiten dira musika lasaigarriaren inguruan. Hasteko, irakasleak beroketa ariketak irakasten ditu eta gero luzaketekin jarraitzen da.

Gimnasiara gerturatu dan jendearen aburuz, oso ondo dago eta oso gustura dagoz. Hori dala eta jendeak interes gehiago agerten badau, urte guztiko ikastaroa proposatuko da.

Guzti hau ikusita, udalak gimnasia ikastaro honeetan parte hartzera gonbidatzen zaitue, lagun artean arratsalde ederra pasatzeko aukera ematen dauelako.

## LUDOTEKAKO ZERBITZUA

Aurtengo ikasturtean be ludotekako zerbitzua emango da Gizarte lokalean. Bere ordutegia hauxe da:

Zapatuetan 6tatik-9etara Domeketan 5etatik-8etara Arduraduna Aizne Agirre izango da
---

Orain arte bertaratzen zan ume kopurua sarritan handiegia izaten zan eta hainbat kexa egon ziren. Garrantzitsuena umeen segurtasuna zan eta horren aurrean, Udalak beste bide batzuk hartzea erabaki zituen.

Arkitektoaren esanetan, lokal horren tamaina kontutan hartuta, 28 lagunentzako tokia bakarrik zegoan. Hortik leku bat arduradunari dagokiolarik. Beraz, 27 umerentzat bakarrik gelditzen zan tokia.

Hori ikusita, Udalak Nabarnizen erroldaturik zeuden umei lehentasuna ematea pentsatu zuen.

Horren aurrean, Nabarnizko eta inguruetako guraso askok beraien desadostasuna agertu zuten eta Udaletxekoekin batera batzar bat egin zuten

irtenbidea emateko asmotan.

Buelta asko eman ondoren zera erabaki zuten:

- Ludotekan sartzeko eskubidea guztiek izatea. Bai Nabarnizen erroldatuak eta baita kanpotik datozenak be.
- 27 ume baino gehiago batzen ziren egunetan, beti nagusiak irtetea.

Garrantzitsua da guraso bakoitzak beraien umei azaltzea hartutako erabakiak, arduradunarekin tira birarik ez edukitzeko.

Espero dogu guztion onerako izatea guzti hau.

Hala ere, norbaitek arazoren bat izanez gero, deitu dezala udaletxera telefono honetara:

94-6255077

## GABONETAKO POSTALAK

Gabonak hile bi barru direla eta, aurton postal lehiaketa bat egitea pentsatu da. Lehiaketa honen helburua umeen irudimena bultzatzea da, iaz ikasitakoa praktikan jartzeko. Horretarako Gabonekin eta euskal kulturarekin zerikusia daukan postala aurkeztu beharko du.

Lehiaketa horretara 6tik 14 urte arteko umeak aurkeztu ahal izango dira, eta irabazleak 60 euroko saria irabaziko du.

Postalak aurkezteko azken eguna azaroaren 23 izango da eta postalak udaletxean aurkeztu beharko dira.

Postalak aurkezteko oinarriak:

- \*Postalak DinA4 formatuan aurkeztu behar izango dira.
- \*Postalen egiteko teknika librea izango da.
- \*Postal bakoitza gutun-azalean aurkeztu beharko da eta gutun-azalean, izen-abizenak, adina eta kontakturako telefonoa edo posta elektronikoa jarri beharko dira, irudian ez da izenik jarri behar.

Sari banaketa abenduko euskararen astean izango da.

## ABERTZALEAK NAGUSI

Urriaren 21ean herriak bere borondatea adierazi dau. Oraingoan alderdi guztiek izan dabe aurkezteko aukera. Ilegalizazioen aldia amaitu da, eta bozketaren ondoren agertu dan panorama aurreko legegintzaldian egoanetik oso bestelakoa agiri da: inoiz ez da oraingoa bezalako gehiengo abertzale sendorik egon, 48 jesarleku PNV eta EHBildurentzat, eta 27 eserleku PSE, PP eta UPyDrentzat.

Hauteskunde honeek era garbian EAJk irabazi ditu. Horrela aurreikusten eben enkuestak eta asmatu egin dabe. Agian, Jaurilaritza berreskuratzeko helburua biztugarri ona izan da bere botoemaileak mobiarazteko. Eta bestetik, beste botoemaile batzuegana be iritsi da boto baliagarriaren aldeko mezua, ezkerreko abertzaleak Legebiltzarreko lehen indar ez izateko ahaleginean. Eta 27 jesarleku lortu ditue. Ez gehiengo osorik, baina gainerakoek lortutako emaitzak ikusita, joko-zelaia zabalik dauka.


Bestetik, EH Bildu indartsu sartu da Legebiltzarrean. Enkuestetan gehiago aurreikusten bazan be, oso emaitza ona lortu dabe. 21 jesarleku guztira. Egia esan, eta hotz-hotzean aztertuta, harrigarria da. Koalitzino honen oinarrian oso indar txikia eukien alderdiak dagoz, eta batu egin dira hamar urtez lege kanpo egon dan alderdiagaz, pertsegitua, buruzagiak kartzelan, egoitzak itxita, kontuak blokeatuta... Hori guztia kontutan hartuta, indartsu sartu da.

Hauxe da irudirik nabarmenena.

Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak behera egin dabe, baina bistakoa zan. Aurreko legealdian boterean baegozan be, ez zan izan herritarrak horretarako botoa emon zitelako, beren-beregi egindako alderdien legeagaz ezker abertzalea jokatik kanpo egoalako baino. Alderdi Sozialistak 16 jesarleku lortu ditu, lehen ebezan 25en aldean.

Eta Alderdi Popularrak beste hainbeste. 10 jesarleku ditu oraingoan, lehen baino 3 gitxiago. Eperdikorik handiena Araban izan dau gainera, aurretik lehenengo indar izetetik laugarrenera pasatuta.

Azkenik UPyD-k mantendu egin dau zuen eserlekua, nahiz eta bototan bajatu egin dan.



# *Nabarniz*

Eta Legebiltzarretik kanpo geratuko dan indarra Ezker Batua izango da. Nahiz eta 47.000 boto eskuratu, ez dabe jesarlekurik lortu. Zatiketak ez dau inoiz laguntzen, eta askoz be gitxiago alderdi txikien kasuan.

Eta gure herriari begiratuta, Nabarnizen izandako emaitzak honako hauek izan dira:

EH Bildu: 98

EAJ/PNV: 58

Escaños en blanco: 2

Ezker Batua-Berdeak: 1


PSE: 1

Boto zuria: 1

Zentsoa: 193

Botoemoileak: 162

Abstentzioa: %16.06



Labur esanda, Gasteizko Legebiltzarraren bi heren abertzalea da. Eta hauteskunde honeetan erabaki dana da zein dan indar nagusia zeinen aurretik. Honek irudi bat itxi dau, jakina, baina ez da helmuga, abiapuntua baino, hurrengo urteetan gertatuko danarena. Erakundeak herritarren zerbitzura dagoan tresna izetea nahi dabe herritarrak. Aro barri bat zabaldu da, eta goi mailako politika eta politikariak eskatzen ditu aro honek. Hasteko, behin-betiko bakea eta demokrazia lortzeko bidea jorrazteko. Eta krisi egoerari aurre egiteko ereduari buelta emoteko. Azkenik, abertzaleek hautes-ontzietan emondako agindua beteteko.

## ELKARRIZKETA

Herrian egin dan sukaldaritza ikastaroari une bat emoteko, parte hartzailea izan dan Iñaki Urdanpilletari galdera batzuk egin dizkiogu.

### 1. *Gustatu al jatzu ikastaroa?*

Bai, asko. Inoiz ez dot egin horrelako ikastarorik, eta egia da sukaldaritzari buruzko gauza batzuk ikasteaz aparte, ondo pasatu dodala lagun artean. Herriko adin ezbardinetako jendea batzeko ideia ona izan da.



### 2. *Errepikatuko al zenuen?*

Bai noski.



### 3. *Zer ikasi dozue?*

Ba, orohar, atzerriko sukaldaritza ikastaro bat izan da. Sukaldaritza arabiarra, mexikarra, indiarra...Oso nahaste bereziak eta bitxiak egin ditugu. Espezia asko erabiltzen dituzten sukaldaritza motak dira. Beraz, gure artean oso ezagunak ez diren zaporeak dastatu ditugu. Batzuk oso gustokoak, eta beste batzuk ez hainbeste. Irakasleak gainera, Paulek, oso ondo esplikatu ditu errezetak.

### 4. *Ikastaro honen gainean izan dozuzan aurreiritziak, bete dira?*

Ba egia esan ez dut aurreiritzirik izan. Ikastaroaren deialdia ikusi nuenean, berehala apuntatu nintzen, gehiegi pentsatu barik. Horrelako zerbait egiteko gogoia neukan eta listo. Gainera, lehen esan dudan moduan, horrelakorik inoiz ez dut egin. Beraz, zaila aurreiritzirik izaterik.

### 5. *Beste herrialde batzuetako jatekoak prestatzea gustatu jatzu?*

Bai horixe, guretzako ezezagunak diren gauzak ikastea beti da aberasgarri, eta oso polita da gainera ikasleonek erreakzioak ikusteak eta entzuteak: “hori bota behar diozu?...gatza barik?...ogi barik?...zer da kurria?...granada entsaladan?...garagarra lapikoan?... Ez neban pentsetan hain gozoa izango zanik!...” Bueno, horrelako mila adibide.

“Sukaldaritzari buruzko gauza batzuk ikasteaz aparte, ondo pasatu dot lagun artean.”

### 6. *Uste dozu egokiak direla horrelako jatekoak Nabarnizen?*

Nik uste dot globalizazioak arlo guztiak ikutzen dituela, sukaldaritza ere. Horregaitik beste lekuetan zer jaten dan jakitea, nola egiten dan jakitea, eta gure herrian, Nabarnizen alegia, egiteko eta jateko aukera izatea oso inportantea da. Hori bai, ez dugu ahaztu behar tokian tokiko janari eta sukaldaritzak itzelezko garrantzia duela. Eta batez ere sasoian sasoiko jakiak jatea. Lurrealde bakoitzak bere nortasuna izan behar dau, baita sukaldaritzan ere.



# *Nabarniz*

## **7. Prestatu dozuen jatekoetatik, zein izan da gehien gustatu jatzuna? Ta zein gutxien? Zergatik?**

Gehien mexikarra. Lehendik be ezagutzen nuen. Tortitak, guakamolea, okela zatitua barazkiekin, burritoak eta pikantea ikaragarri gustoko ditut. Eta gutxien kus-kus-a. Oraindik ez diot puntua hartu jaki horri.

## **8. Ikastaro hau gomendagarria dala uste al dozu? Zergatik?**

Ikastaro mota guztiak dira gomendagarriak. Batez ere Nabarniz moduko herri txikietan. Aipatu dudan moduan, jendea batzeko era oso aberasgarria eta polita da. Interes apur bat euki ezker, oso ondo pasatzeko aukera paregabea da. Eta bai, sukaldaritzarena, idea ona izan da.

## **9. Errezetaz aparte, beste zeozer ikasi al dozu?**

Ba, ogi barik jatea oso zaila dela...garagarrak egosteko 40 minutu baino gehiago behar dituela...herri arabiarretan letxugarik ia ez dela jaten... Ikastaro mota hauetan, afaldu aurretik kriston gosea pasatzen dela...!



## **10. Zer berdintasun eta desberdintasun ikusi dozu gure eta beste herrialde batzuen errezeten artean?**

Buff! Erantzun luzea behar du galderak. Baina laburtzarren, beste herrialdeek guk baino espezia askoz gehiago erabiltzen dutela da ezberdintasun handiena. Eta antzekotasunetan, ba barazkiak. Denok erabiltzen ditugu barazki mota ezagun batzuk. Ah, eta kipula eta berakatza! Hauek bai leku guztietan erabiltzen direla!

## **11. Zein da zure iritzia irakasten ibili dan sukaldarian gainean?**

Oso ona eta majoa gainera. Hainbat plater osatzen ari den bitartean, azalpenak emateko eta gure galderei erantzuna emateko gai da. Eta gainera, ikaragarriko PAZIENTZIA daukala erakutsi digu. Oso ondo,Paul, benetan.

## **12. Ikasi dozun zeozer etxean egingo al zenuen? Zer?**

Ba zehazki ez dakit zein plater osatuko nukeen, baina adibidez piper beltza eta kurria gehiago erabiliko nituzkeela, fijo. Adibide bat ematearren, oilaskoa kurriarekin, oso goxoa da.

## **13. Ze beste sukaldaritza motako ikastaroa gustatuko jatzun jarrea?**

Badakit lehen ere eginda dagoela, baina ni bertoko sukaldaritza tradizionalari buruzko ikastaro batera gustura joango nintzateke. Ah! Eta bide batez, ehizari bere tartea emango nioke. Nola prestatu oilagorak, usoak, galeperrak, eperrak,basurdea, orkatza....

## **14. Ikastaroan zehar ondo pasatu al dozu? Zuon parte hartzea ona izan da?**

Ba bai, oso ondo pasatu dot, herriko jendearekin beste era batean egoteko eta berbetako aukera izan dot. Sukaldaritza ikasteaz aparte, barre asko egin dogu alkarrekin.

# EUSKARAREN ASTEA 2012

**euskaraz  
bizi  
nahi dut**

## **Abenduak 1 Zapatua**

Magoa (Oliver Magoa) 17.00 Frontoian

## **Abenduak 2 Domeka**

Pailazoak (Irrien lagunak) 17.00 Frontoian

## **Abenduak 3 Astelehena**

Ipuin kontalaria (Ixabel Millet "Gabonetako euskal ipuinak") 18:00etan

Gaztaina jana

## **Abenduak 8 Zapatua**

Arratsaldean frontoian tailerrak

Txokolatea



**nabarniz**

Telefonoa: 94 625 5077

E-maila: [idazkaria.nabarniz@bizkaia.org](mailto:idazkaria.nabarniz@bizkaia.org)